

## Farsallustan

TXILLARDEGI



**TRUMILKA** datokzigu berriak Sobietar Batasun-ohi hartatik. Eta, hori dela bide, gertakari esanguratsu asko itzuri egiten zaigu, eta errepara-  
ratu gabe ahazten.

Horixe izan da Farsallustango kasoa. Osetia eta Daghestan-en artean kokatua (Kaukaso betean, beraz) gertakari latzak jasau ditu Farsallustanek.

Frankowsky diktadorea 1975an hiltzean, Kaukasotar haiek beste bide bat hartzen saiatu ziren. Garrakoyan-en zuzendaritzapean (1977-1988) bazirudien gauzak aldatuko zirela.

Baina 1988an Farsallus pope-ohiaren azpikolpearen ondorioz, Moskuk agintzen du berriro. Farsallus Popetuak Pakto hauteszina egin du Sabuesowskyrekin; eta, guztiz harro-  
turik, izena ere aldatu dio Errepublikari: 1992ko uztailaren 18az gerotik, 'Farsallustan' birbataiatu du, bertakoentzat *Euskalpakia* zena.

Baina prentsaren alorrean gertatu dena izan bide da azkeneko gertakariaren gako. Establis-  
nismoaren garaian bezalaxe, Euskalpakioa prentsa osoa (Pravda, Corresvestia, Sude-  
vestia, eta abar) erriesiaz argitaratzen zen oraindik 1990an. Euskalpakiar abertzaleek bat eginik, Euskalpakioa *kazeta bat* bederen euskalpakieraz argitaratzea erabaki zuten: 'Egunkarian' izenekoa.

Farsallus eta Sabuesowsky, orduan, «koleran montatu ziren»: eta, «nola edo hala», «gostala gostariki», «porko-honioskoff», 'Egunkarian' hori *suntsitu* behar zela erabaki zuten.

Eta 1992ko Abenduaren 17an, 'Egunkarian' bigarren urteurrena betetzen zen egunean, bertako osteek eraso bide dituzte Farsallustango bulego nagusiak, aurkitu duten paperkeria guztia erreaz. Bi buruzagien etxebizitzan ere sartu dira: eta bertan bide zegoen *ohé bakarra*, plazara atera eta erre.

Sabuesowsky eta Farsallus kamaradak arbolabatetik zintzilik agertu bide dira, txorimaloz moztorturik.

Eta 'hala bazan eta espazan', ni Anoetara agertuko naiz igande honetan. Eta zu ere bai, otoi, irakurle; zaude bertan!

## Arrautzak eta mirariak

HASIER ETXEBERRIA



**ASKOTAN** badi-rudi telebisten erreinutik ez daitekeela ezer onik eor. Telebista publikoak politikariaren mesedetan ibiltzen dira eta pribatuak

ostera, diruaren usainean. Bata zein beste, ez dira zerbitzu tresna izaten hiritarrentzat, gehienetan behintzat.

Halabaina, noizki eta behin, bazterren batean gertatutako mirarien berri izaten dugu eta hala, jakinekora bihurtu da Sarajevoko telebistak zerbitzu programazioa emittitzen duela egunero hamalau ordutan zehar.

Granadek eta balek jota daude telebistetx-  
tzarraren horma, leiho eta aie guztiak. Batzuk bertako bulegoetan bizi dira, besterik ezean. Baina egunero daude antenan eskolara joan ezin duten haurrentzat programak. Egunero gerlarren gora beherak, egunero albisteak, mezuak eta deiak.

Lehen bi mila ziren bertako langileak, orain mila geratzen dira, batzuk ihesi eta besteak hilda. Bosniar serbiar eta musulmanak denak batean eta elkarlanean 1.200 pezetako solda-  
taren trukean. Diru horrekin lau arrautza erosteko lain dute. Izan ere 300 pezeta inguru balio du arrautza batek gaur Sarajevon.

Hemen arrautzak merkeago daude. Milatik gora eros liteke ia edonork hilaibeteko solda-  
taren trukean. Granada eta antzekorik ez dabil inguruan. Baina agian mirariak falta zaizkigu. Zer eta zertarakoak garen oroitaziko diguien mirariak.


## HEMEROTEKA

● egin

### Galdeiozue Arzalluzi

Daturen bat izango dute EAJ eta Arzalluz jaunak ezker abertzalearen kontra erabiltzen duten oldarkortasun eskerge hori pilatzeko, horrek jendarean altematiba ekonomiko bat eskaini duenean. Zifra izkuren batek izutu egiten du, modu txarrean eraso egiten duenean bere alderdiko militante ugari kotizatzen duten sindikatu baten aurka. Zerbaitek lausotzen du bestorduz argia izandako burukidearen burua, Herri Batasunari txu egitea eskatzen duenean. Zerbaitek ihes egiten dio Arzalluz jaunari, bere indar osoz egunkari honi eraso egitera behartuta sentitzeko, bitartean Informazio Eskubidearen Defentsarako Plataformaren aldeko laguntza sinatzen duela, Madriden, jakina.

Zerbaitek ari da mugitzen EAJren baitan, Euskal Herriaren etorkizuneko ekonomi hondamendia ezohizko trebezi-  
az gestioatatu zuten eta egun ere gestioatzen ari diren artean. Zerbaitek hainbesteko mina egiten die non eskutatik



GALLEGO & REY / DIARIO 16

jostailua ihes egiten dien astopetro iraintzaileen moduan azaltzen ari baitira.

Ehun eta laurogeita hamalau mila pertsona daude langabezian gaur egun, eta Arzalluzek iraindu egiten du. Uztazu politika Xabier jauna, nola egin ahal izan duzun bidegabekeria historiko hau zuri galdetuko dizutenak askoz ugariagoak izan eta erantzuteko beste irai-  
nik ez izan baino lehen.

EDITORIALA

### ● Diario 16

#### Herri Batasunaren bidegurutzea

Alde batera utziz gauzak guztiek beren denbora eskatzen dutela, eta agian orain bakarrik beharaldi baten hasieraren le-

kuko izaten ari garena, ezinezkoa da ez ikustea testuinguru politiko berriaren baitan koalizioaren biziraupena bera problematikoa dela. Orain arte HB eta ETA fenomeno beraren bi aurpegikerak ziren: «*Batus quo*» konstituzionalaren aurkako erantzun bolenotia, hori Euskadiren nortasun historiko eta faktikoarekin bateraezinezkotzat jotzen baitzen.

Egoera honetan, bi besoek, politikoak eta terroristak, atzera-elikatze prozesu baten bidez elkarri laguntza ematen zioten. Atentatuek etsiaren zaugarritasuna eta kausaren bizitasuna agerian uzten zituzten; bestalde, hauteslegoaren ehuneko hamabostaren botoja jasotzen zuten zerrendak egoteak antolatuta egiten zuten taktika politiko «ortodoxoaren» mailan programak zeukan

alde zalantzarria.

Dialektika hau hautsi ondoren, bi gauza ezberdin gerta litezke. Bateko, HB alderdi erradikal bihurtzea, nahiz eta jadanik ez legokeen biolentziarekin engaiatuta. Beste, ETArenerferentzia galdu ondoren, demokraziaren dinamikaren ondorioz hainbat giza jatorritako hauteslego hori zatituta gelditzea, eta zatiteta hori modernotasunaren aldaketek kutsatzeke gelditu ez den euskal gertarean dauden norabide eta maila guztietan gertatuko litzateke. Bukarera horietako edozein egungo egoerarekiko urrats positiboa litzateke. Euskadin dabilan haize berriren beldur, ordea, oraino bazuk uste osoz baino gehiago burugogorakeriaz arma zaharren beila ari dira egiten.

EDITORIALA

## ZUZENDARIARI

### Hau al da kafe-teatroa?

Jaun andreok, zuekin komioen tropela! Berriz ere Erreterian kulturaren alde ari dira. Ja! Utz iezadazue far egiten.

Aski da aitxakiekini!

Gauzak guztiek beren lekua dute, eta kafe-teatroa lokal altematiboetan egitekoa da, inolaz ere ez Niessen bezalako sala komertzialetan. (Bai badakit zer esango duzun, baina, kontuz, sala hau haizorraz hutsa baita, haizearekin bezala interesen eraginez dabilena). Lokal horiek egon badaude Erreterian, De Cyne Reyna taberna esaterako, bertan antolatzen duen ikuskarien programaketa guztiok ezaguna baitugu. Le-  
ku hauek bilatu eta erabili besterik ez dago, programatzailearen lana delarik hori.

Aitzakiak, aitxakiekumek dira. Zergatik ez oie dira gauzak ondo egiten eta eskapareak abaztu? Zein da arazoa? Aingeru Zaindarien eskolako haurrak eta euren ikastaro amaierako bidaia? Zalantzarako aukera utz iezadazue.

Ez nago ongiegitearen aurka, lehenengoa naiz laguntza eskeintzen behar izanez gero. Behar duenari lagundu. Ez dut uste ordea honako hau egoera horren isla denik. Aski da abadagunetaz aprobetxatzea! Badago une eta baliabide egokiagorik.

Erreterianiko antzerki programaketa Niessenaren eskubizitateak ikusten da guzti honetan, erabat ezbidetzakoa dena, amore eman behar delarik berriz ere. Badago jendea kulturaren alde iharduten duena ere, bere patrikatik dirua jarriz gainera, beraien

aukera da, zuek errotik kentzen diezuena. Elkartzasunzaleak bazarete partitu, elkarbanatu, tropel berdinan daude. Ekintza onak ez dira egiten zure lan bera eta ondo egiten ari denari lapurtuz.

Non dago kafe-teatroaren filosofia?

Galde egiten du eta galde egin ihardunaldi hauen programatzaile eta antolatzaileei. Betidanik pentsatu ohi dute antzerkiaren helburua usaizko saletatik lokal altematiboetara ateratzea izan dela. Zergatik ez da horrela Erreterian? Ihardunaldi hauen antolatzaileen zintzotasun eta koherentzia ezagatik.

K.A.O.  
Erreteriera


## GAIA JARRITA



### Langabeziaren igoera

Bostetik batentzat langabezi tasa, danak diote dala komeri eskasa. Diruak du hemengo dantzaren kompara. beraz ezin liteke besterikan pasa.

EUSEBIO IGARZABAL



Batzorde Patxetika 72504 E. / Lege Gortailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDUI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentee: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: ISAKI URIA

Zuzendariordeak: LUZIEZ ETXEHARRETA

Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARKASCAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzioa eia Tailerra: ANITZA S.A. Industrialdea 01-02

Publihoak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Aniso

Jakintza, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 27

Araba: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13, esk. / (Irimiz dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1, eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta Kutxaila, / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11